

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Elhuyar ikaslearen hiztegia

Batzuen artean


ELHUYAR FUNDAZIOA

1044 orrialde +
CD-ROM
26 euro

Ikaslearen Hiztegia guztiz eguneratua

1997an izan zuen *Elhuyar ikaslearen hiztegia*-k aurreneko edizioa. 2001ean izan zuen bigarrena, eta aurtengo abuztuan kaleratu du hirugarrena, CD-ROM eta guzti. Edizio berri bakoitzak, hasierakoaren izen bera izan arren, baditu aurrekoarekin aldeak, batik bat edukietan ikasleen beharretara egokitzeko. Plazartu berriak 4.000 hiztegi-unitate gehiago ditu, 7.000 adiera inguru gehiago, 900 gramatika-ohar, bakoitza bere adibidearekin, eta 518 hiztegi-unitate irudiz edo gramatika-taulaz hornituak. Horiez gain, hiztegiaren amaieran, aditz eta deklinabide-taulak

jasotzen dituen eranskina eta munduko estatuen ize-nak, hiriburuenak eta herritarrei nola izendatzen zaien jasotzen dituen eranskina ere baditu. ■



Antzinako euskal matematikaz zenbait burutazio

Batzuen artean

GAIK


280 orrialde / 22 euro

Euskal matematikaren eta ilargiaren egutegiaren ikerketak

Fernando Bustillok, Roslyn M. Frankek eta Alfontso Mtz. Lizarduikoak osatutako liburua da *Antzinako euskal matematikaz zenbait burutazio*. Aritmetikaren hastape-nak izan daitezkeelakoan, Cro-Magnongo gizakiek animalien hezurretan utzitako markak aztertu dituzte, baita Aurignacaldiko eta Goi Paleolitoko aztarnategie-tan aurkitutako beste kalkulu tresna batzuk ere. Atzetik, Josu Naberanek euskaldunen ilargiaren egutegiaren inguruan egindako azterketen ondorioak azaldu dituzte: euskaldunok garatutako kontatzeko oinarritzko sistema hogeitarra eta hemengo errotariak zeukaten sistema. Azkenik, Patziku Perurenak zenbakien euskal sinbologia azaldu du. ■

Artea eta merkatua oholtzan

Iazko Donostia Hiria literatur lehiaketan gaztelaniako antzerki saria irabazi zuen Francisco Romerok (Torralba de Calatrava, Espainia, 1961) *Shylock Gallerie* lanarekin. Hiru pertsonaiaren gainean eraturako antzezlan da: ilusio eta goranahi izugarritz osatutako artelana galeriarik ospetsuenaren bidez aupatu nahi duen margolari gaztea; galeria horren jabe eta sustatzaile buruargia; eta hark erabili ohi duen arte kritikaria, inguratzen zaizkion artistetatik interesgarrienen lanak oihartzuna izan dezaten lan egiten duena. Urte asko daramatza kritika-riak galeria jabearekin, baina minduta dago, berak asko maite zuen margolari gazte baten heriotzaren errudun-tzat jotzen duelako. Eta emakumearen maltzurkeriari aurre egiten ahaleginduko da. ■

Shylock Gallerie
Francisco Romero

KUTXA FUNDAZIOA

72 orrialde
8,01 euro

III. Onomastika Jardunaldiak

1990eko irailaren 26, 27 eta 28an, Lizarran, Fray Diego de Estellaren familiaren etxean egin ziren III. Onomastika Jardunaldiak. Han aurkeztutako hitzaldi eta txostenen laburpenak jaso dituzte Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuak eta Lizarrako Udalak *Onomasticon Vasconiae 7*-n. Bildutako lanen artean, hauexek aipa genitzake: Fernando González Olléren *Relaciones lingüísticas vasco-románicas. A propósito de la etimología de Estella*; José María Jimeno Jurioren *Toponimia rural y urbana de Estella*; Luis M. Mujika Urdangarinen *Allin ibarreko euskal toponimia (Mendebaleko euskararen aztarrenak Lizarrerrian)*; Fermín de Leizaola Calvoren *Aportación a la toponimia de las sierras de Andía, Urbasa y Entzia*; eta José M. Satrustegiren *El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica*. ■



Onomasticon Vasconiae 7

Batzuen artean

EUSKALTZAINDIA
586 orrialde